

LICENCIADO POZAREN IV. MENDEURRENA

Batzar irekia, 1987-IX-23

Urduñako, "Arana'tar Sabin" Kultur Etxean ospatu da Licenciado Pozaren omenezko Euskaltzaindiaren batzar irekia. Mahaipuruan bildu dira: L. Villasante, Euskaltzainburua; J. Haritschelhar, buruordea; Joseba Arregi, Jaurilaritzako Kultur Kontseilaria; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Foru Diputazioaren Kultur Diputatua; M.^a Karmen Garmendia, Jaurilaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaria; Ana M.^a Barañano, Urduñako Alkatesa.

Kultur Etxeko aretoa jendez beterik dagoelarik, bertan aurkitzen dira baita ere: A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Salaburu eta J. San Martin, euskaltzainak; J. Bilbao, euskaltzain ohorezkoa; R. Badiola, J.A. Etxebarria, J. L. Goikoe-
txea, A. Iñigo, J. M.^a Jimeno Jurio, J. M.^a Larrarte, J. L. Lizundia, L. M.^a Mujika, A. Muniategi, J. Oleaga, Tx. Peillen, M. M.^a Ruiz Urrestarazu, A. Sagarna, P. Uribarren, Mikel Zalbide eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak.

Lehendabizi, L. Villasante Euskaltzainburuak agurrezko hitz batzu esaten ditu. Euskaltzaindiak, Euskal Herrian zehar, honako bilkurak egiten dituela azpimarratuz. Aurten, Licenciado Poza Urduñako semearen omenez beraren *De la antigua lengua de las Españas* liburu famatuaren argitalpenaren IV. mendeurrena dela medio. Euskaltzainburuak adierazten du baita ere nola Onomastikazko II. Jardunaldiak irekitzen diren hemen bertan. Iaz, lehendabizikoak egin ziren Gasteizen eta aurtengo honetan gai nagusi bezala hau da: "Euskal onomastika egun euskara mintzatzen ez den tokietan".

Jarraian, Eugenio Coseriu errumaniar hizkuntzalari eta Alemaniako Tübingeneko Unibertsitateko irakasleak, hitzaldi oso interesgarria ematen du, gai hau harturik: "Andrés de Poza lingüista del Renacimiento". Puntuz-puntu, Licenciado Pozak garai hartako hizkuntzalaritzan izan zituen ikerketak eta jakiteak gorai-patu ditu, bai euskarari buruzkoak, bai Europako hizkuntzen sailkapenean errumaniara latin hizkuntza zela lehendabizikoz zabalduz.

Ondoren, L. Mitxelena jaunaren gutun bat irakurtzen da, zeinetan beraren emaztearen gaixotasunagatik, ezin etorri agertzen bait du. Beraren txostena: "Actividades no registradas de Andrés de Poza en Flandes" geroagorako agintzen du.

Hurrengo, Carlos González Etxegarai jaunak Licenciado Pozaren bibliografiaz hitzaldia ematen du, zehatz-mehatz Pozaren lanak arakatuz eta beraiek izan dituzten berrargitalpenen berri emanez.

Segidan, Euskaltzainburuak, banan-banan deiturik, euskaltzain urgazle berriei izendapen diplomak banatzen zaizkie: Andrés Iñigo, José M.^a Jimeno Jurio, José

M.^a Larrarte, Abel Muniategi eta Andoni Sagarnak hartzen dute agiri hori. Xipri Arbelbidek bere ezin etorria adierazten du.

Azkenik, Joseba Arregi, Jaurlaritzako Kultur Kontseilariak, Jose Antonio Ardanza Lehendakariaren izenean, II. Onomastika Jardunaldiak zabaltzen ditu, Licenciado Pozaren mendeurren goratarre honetan.

Batzarrea amaitu ondoren, II. Mapagintza Erakusketa irekitzen da.